



INGURUMENA. 12-14 URTEKOAK

Calasanz Kideak



Emaus

Barbastro, Bilbo, Granada, Jaca, Logroño, Minheuene (Mozambique), Pamplona-Iruña, Sevilla, Tafalla, Tolosa, Vitoria-Gasteiz, Zaragoza



Atenditutako pertsonak

3.626 NESKA-MUTIL



Proiektuan lan egiten duten pertsonak

646 hezitzaile/begirale

Parte-hartze guztia borondatezkoa da, Itaka-Escolapios kudeaketa-arloetatik funtzionamendu teknikoan laguntza ematen den arren.



Egiten den lanaren deskribapen erraza

Calasanz kideak, eskolapio talde ezberdin guztien elkartzea da, Calasanzen espirituan eta estiloan inspiratutako proposamen hezitzaile eta ebanjelizatzaile berean batzen direnak. Adin guztietarako esperientzia ezberdineko programazio jarraitua da, taldean bizitako prozesu pertsonal bat ahalbidetzeko, fedea eta bokazioa kristaua aurkitzea oinarri duena.

Zeregin nagusia haurrak, nerabeak, gazteak eta helduak elkartu eta beraiekin batera bidea egitea da. Prozesu horren barruan sartzen da ere bokazio eta misio eskolapioetako prozesuko bidea Eskolapioen fraternitate taldeetaraino dijoana. Calasanz Kideak-en ustez, Ingurumena guztion etxea da, eta babestu behar dugun oparia. Haur eta gazteei zuzendutako hezkuntza-jardueren bidez, natura zaindu eta errespetatu behar

dela ulertzea sustatzen dugu. Ingurune naturalarekiko zuzeneko interakzioen bidez, Jainkoaren esperientziak sortuko ditugu eta komunitateko bizitza indartzen dugu. Naturan izandako esperientzia horiek ingurumen-konpromisoa indartzeko ere balio digute.



MUNDUAN, NONB  **IT**

Itaka-Escolapios-en proiektu bat



Gizarte-errealitatearen aurkezpena:

- Calasanz Kideak, gure ikastetxeetako neska-mutil guztiei eskaintzen zaie, helduen taldeak ere izanik.
- Parte-hartzaile guztiek Jesusen estilora errealitatea eraldatzen duten agenteak izatea nahi dugu, beraiek eraldatuak izaten diren bitartean. Hori dela eta, zutabeetako bat Errealitatearekiko Konpromisoa da: nola hobetu gure ikastetxea, gure auzoa, gure gizartea, nola parte hartu dezakegu modu aktiboan Itaka-Escolapios-en gizarte-konpromisoko proposamenetan gure egoitzan eta, jakina, ingurumena zaintzean: "gure etxea."
- Calasanz Kideak-ek mundu hau eraldatu nahi duten pertsonak eraldatzen ditu.



Azken urteotako lorpenak/ Lanean jarraitzearen garrantzia

- Pandemia egoeran, ahalegin handia egin zen Calasanz Kideak-en funtzionamenduari eusteko eta mantentzeko. Bai konfinamenduan, bai normaltasun berrira itzultzean.
- Gaur egungo erronketako bat gaurko munduari erantzuteko gure burua prestatzen jarraitzea da, federa modu berrian iritsi ahal izateko. Horregatik da hain garrantzitsua begiraleen etengabeko prestakuntza, eta modu eta baliabide berriak etengabe bilatzea.
- Sinodoaren aldeko apustua: Gazteen Sinodotik (2018) Sinodalitatearen Sinodora (2023), denon parte-hartzerako gako berriak proposatzen jarraitzen dugu: gazteen ahalduntzea, lan-taldeen sorrera eta espiritualtasunaren, ekologiaren, berdintasunaren eta gizarte-konpromisoaren aldeko sentsibilitateak landuz.



Etorkizuneko asmoak (hobekuntza ildoak)

- Egoitzen artean sareak sortzen jarraitzea.
- Bakoitzari bere lekua eta bokazioa aurkitzen lagun diezaieketen espazioak indarrez bultzatzea.
- Itaka-Escolapios-en proiektu ezberdinak konektatzea, Mozambikeko gure antzeko errealitate misiolariarekin amets egiteari utzi gabe.